

EREMU BAKOITZAREN AZALPENAK:

1. Ikastetxearen, elkartearen, ikastegiaren, autonomoaren, enpresaren izena.
2. Aukeratu emaile mota bat: Udala, Enpresa, Guraso-elkartea, Euskalgintza, Bestelako elkarte/fundazioa, Autonomia/partikularra .
3. Aukeratu hauetatik arlo bat: Kirola, Aisia, Jarduera artistikoak, Musika, Hizkuntzak, Hezkuntza.
4. Emaileak taldeari jarri dion izena.
5. Aukeratu azpi-azpiko zerrendatik jarduera gai bat *
6. Hezitzailearen izena(k): entitate emaile baten izen bereko bi lagun badaude, identifikazioa gehitu (adib.: "Martxel.Ar eta Martxel.Eg").
7. Aukeratu hauetatik bat: Lan ordaindua / Boluntarioa / Ikasketa/praktikak.
8. Gai bada sartu "%100" eta gai ez bada sartu "%0". Talde baten hezitzaile bat baino gehiago badago, dagokion %. (adib.: taldean 3 hezitzaile, eta batek ez daki >> sartu datu hau: "%33")
9. Aukeratu: A1, A2, B1, B2, C1, C2
10. Sartu taldeko hezitzaileen artean emakumezkoen %: hezitzaile bakarra, emakumezkoa> sartu %100. Bi hezitzaile, bat emakumezko> sartu "%50"
11. Aukeratu taldeko hezitzaileek beren artean nola hitz egiten duten: euskaraz, erdaraz, bietara edo, hezitzaile bakarra egonez gero, "ez dagokio".
12. Aukeratu: Euskaraz (%100) edo Gehien bat euskaraz (%75), Erdizka euskaraz (%50), Gehien bat erdaraz (%25), Erdaraz (%0).
13. Taldeko haur/gazte kopurua.
14. Aukeratu: 0-5 (HH) edo 06-11 (LH) edo 12-16 (DBH). Hainbat adin-tarte nahasten badira, aukeratu gehiengoarena.
15. Aukeratu: Sartu taldekideen artean emakumezkoen %a: taldekide guztiak emakumezko badira sartu %100; 10 taldekidetik 2 emakumezko> sartu "%20"; taldekideen artean emakumezko ez > sartu %0.
16. Ikasturtean zehar taldean ematen diren orduen kopurua.
17. Azaldu jarduerarako edo emailearen funtzionamendurako baliabide material, espazial, pertsonal eta ekonomikoetan ERAKUNDE PUBLIKOEN FINANTZAZIOAN duten parte-hartzea: emailearentzako diru-laguntzak, emailearekin hitzarmen iraunkorra (>1urte), hezitzaileen kontratazio publikoa, espazio eta baliabide fisiko publikoen lagapena.
18. Hauek sar daitezke: behaketazko erabilera neurketak, ikasleei egindako inkesten emaitzak, haur/gazteen ezagutza datuak, hezitzaileak gaitasun aldetik euskaraz edo erdaraz errazago moldatzen diren, udalak edo bestelako erakunde publikoek emaileari hizkuntza baldintzak jartzen ote dizkion...

*Aukerako jarduera-gaiak:

Aire zabaleko aisia	Errugbia	Joskintza	Saskibaloia
Antzerkia	Eskola-laguntza	Kzguna/IKT/AI/robotika	Scoutak
Arraunketa modalitateak	Eskubaloia	Lehiaketa/partida/txapelketa	Solfeoa
Arte martzialak	Eskultura	Ludoteka	Sukaldaritza
Atzerriko hizkuntzak	Futbola	Mindfulnessa	Surfing/bela modalitateak
Beisbola, futbol amerikarra	Gaztelekua	Multikirolak	Txirrindularitza
Bertso-eskola	Gimnastika	Musika tresnak	Udalekua
Bideo-jokoak taldean	Herri kirolak	Parkourra	Xakea
Boleibola	Hockeya	Pertsonen garapena	Yoga
Dantza modalitateak	Igeriketa, waterpolo	Pilota modalitateak	Zeramika
Erlijio-ikasketak	Irakurketa (klubak...)	Pintura	BESTELAKOAK